

3.2. Planaren lan-ildoak

Jarraitu beharreko neurriak berdintasunerako GOBERNANTZA hobea lortzeko: berdintasunaren printzipioz erakundean eta funtzionamenduan inplementatzeko orinarrizko baldintzak

EMAKUMEEN JABEKUNTZA eta baloreen aldaketa

¿ZER DA?

Gizonen eta emakumeen harreman pertsonaletan eta sozialetan oreka handiagoa lortze aldera, emakumeek boterea lortuz joan behar dute genero harremanen gizarte berreraikitzearen bidez autonomia eta herritartasun osoa. “Jabekuntza” hitzarekin “boterea areagotzeaz” mintzatzen da, hau da, pertsona gisa indartzeaz, eta norberaren egoera sozialaz, ekonomikoaz eta politikoaz ere bai. Norberaren agintaritza eta boterea areagotzea bitartekikoa eta bizitzan eragina duten erabakiekiko.

Gizarte-antolaketa ERANTZUNKIDEA

¿ZER DA?

Bateragarri egitetik harago, berdintasun politiketako printzipio gisa erantzunkidetasuna inplementatzeko helburuak berekin ekarriko du emakumeek eta gizonen ardurak beren gain artesa eremu publikoan eta pribatuan, eta bereziki, gizonen eremu pribatuan duten parte-hartzea areagotzea. “Horretarako bateragarri egitea erantzunkide izatera eta denboraren erabilpen berriak egitera bultzatu beharko da.

Emakumeen aurkako INDARKERIA

¿ZER DA?

Emakumeek gizartean duten desberdintasun egitura egoeran ditu sustraiak emakumeen aurkako indarkeriak. Aipatutako indarkeriak hainbat alderdi ditu, diskriminaziotik eta mesprezutik hasita, eraso fisiko edo psikologikoetatik pasatuz eta hiltzeraino iritsiz. Oso eremu desberdinetan egiten da (familia, lana, hezkuntza...), baina berebiziko garantiza hartzen du etxean eta bikotean.